

AKTA

UDAL OSOKO OHIKO BATZARRA

Udal-Osoko ohiko batzarra bildu da:

Eguna: 2023/07/26

Ordua: 18:00-ak

Tokia: Udaletxeko Areto Nagusian

Bertaratuak:

Alkatea: Joana Mendiboure

Zinegotziak:

EHBildu

Agustin Lekuona Irastorza
Garazi Urdampilleta Astibia
Ibon Mitxelena Fernandez
Nora Velez del Burgo Zalakain
Jexux Olaziregi Bagües
Oihana Irastorza Gonzalez
Ekain Susperregi Iburguren
Jon Albisu Mendiburu

EAJ-PNV

Janire Mitxelena Lekuona
Rafael Bergaretxe Urdampilleta
Iñaki Arbelaiz Mitxelena

Idazkaria:

Oihane Mallagaray Revilla

Ezin etorria adierazi dute:

Olaia Lasa Olaziregi
Edorta Fernandez Etxepeteleku
Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi
Ibintza Irigorri Iriarte
Maitane Larruskain Agirre

AZTERGAIK/LABURPENA:

Hartutako akordioak

1. Aurreko bilkuraren (2023/07/12) akta onartu da.
2. Udalbatzaren hainbat eskumen alkateari eskuordetzea erabaki da.
3. Uraren Euskal Agentziari Gorrinzulo iturburuko abeltzaintzarako ur-aprobetxamenduaren administrazio-emakidaren eskaera egitea onartu da.
4. Uraren Euskal Agentziari Malkor erreko abeltzaintzarako ur-aprobetxamenduaren administrazio-emakidaren eskaera egitea onartu da.
5. Uraren Euskal Agentziari Erain erreko abeltzaintzarako ur-aprobetxamenduaren administrazio-emakidaren eskaera egitea onartu da.



OIARTZUNGO
UDALA

6. Alzibar Egoitza Berria SL sustatzaileak Javier Telleria Elorz arkitektoak egindako “Oiartzun. Alzibar ALT 6 eremuko R-2 lursailaren xehetasun azterketa” dokumentua behin betikoz onartu da.
7. 2023. urteko lanpostuen zerrenda eta plantilla aldatzea onartu da.
8. 2022ko ekitaldiari dagozkion eskubide ekonomikoei baja ematea (ordainagiriak baliogabetzea) onartu da.
9. Adierazpen instituzionala irakurri da (EH Bildu eta EAJ-PNVren artean).
10. Kreditu gaikuntza motako 5 zb.ko kreditu aldaketarako espedientearen berri eman da.
11. Beste organoen jardueraren jarraipena egin da.

Gai zerrendatik kanpo eta aldeztatik aurretik premiazko izaera bozkatu eta aho batez onartu ondoren, honako gaia landu eta onartu da:

GZK 1. 2024. urteko Oiartzungo udalerriko jai eguna abuztuaren 3a izatea onartu da.

13. Ez da eskaera ez eta galderarik egin.

- I -

AURREKO BATZARRARI DAGOKION AKTAREN ONARPENA

2023ko uztailearen 12ko ezohiko bilkuraren akta onartu da.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	11	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Gaia aho batez onartu da aldeko 11 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- II -

UDALBATZAREN HAINBAT ESKUMEN ALKATEARI ESKUORDETZEA

Alkateak dio ohikoa dela Alkateari eskuordetzea Udalbatzari dagozkion eskumenak, udal-jarduera arinagoa eta eraginkorragoa izan dadin.

Gure kasuan, alkateari, berari, eskuordetzan emateko proposatzen diren eskumenak izapidetzakoak dira, eta teknikariek egindako proposamenari erantzuten diote. Beraz, ez dira erabakigarriak izango, eta haien helburu bakarra espedienteak arintzea da.

Kasu bakar batean da erabakigarria eskuordetzea, kontratu publikoetan zigorrak ezartzeko espedienteak hasi, izapidetu eta ebatzea, eta arrazoa oso argia da: espediente horiek azkar izapidetu behar dira, beste modu batera iraungitzen direlako edo helburua galtzen dutelako.

Antolaketa eta Kontu Bereziak Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman du, eta honenbestez, Udal Osoko Bilkurak honako ebatzpena hartu du:

Lehenengoa.- Alkatearen esku uztea ondorengo Osoko Bilkuraren eskumenak, legeak xedatutako epeak betetzea lortzeko:

- Udalerriko hauteskunde mahaiak eratzeko eskumena. Erabaki honek hauteskunde guztietarako izango du balioa, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko 5/1985 Lege Organikoan, ekainaren 19koa, jasotakoari jarraiki. Indarreko legediaren baitan egintza hau beti publikoa izango da.
- Osoko bilkuraren eskumenekoak diren Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legean oinarritutako kontratuetan, lizitazio prozedura barruan dauden eta espedienteak onartu eta behin betiko esleipenak ez diren gainerako tramiteen izapidetze eta ebatzpena.
- Exekuzioan dauden kontratuetan baldintza ekonomiko-administratiboen agirian ezartzen diren luzapenak onartzea.
- Exekuzioan dauden kontratuen aldaketa espedientei hasiera ematea.
- Kontratu publikoetan zigorrak ezartzeko espedienteak hasi, izapidetu eta ebatzea.

Bigarrena.- Alkateak hartuko dituen erabakien testuan, delegazioaren baitan eginikoak direla adieraziko da azalpen-zatian ondorengo testua ipinita:

"Udal Osoko Bilkurak 2023ko uztailearen 26an egintako bilkuran onarturiko eskuordetzen arabera, Alkatearen eskumena da ondoko akordioa hartzea."

Alkateak delegazio honen baitan hartuko dituen erabakiek Udal osoko Bilkurak berak bete beharko lituzkeen prozedurak bete beharko dituzte.

Hirugarrena.- Erabaki honen berri ematea dagokion organoari eta argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean. Eta 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoan eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoan xedatutakoa betetzea ebazpen honetan adierazitakoei buruz publikotasun aktiboari dagokionean.

Laugarrena.- Erabaki honen berri emango zaie, jakin dezaten eta ondorioak sortzeko, udaleko sail eta azpisail desberdinei.

Rafael Bergaretxe Urdampilleta 18:07an bertaratu da, alkatea gaia azaltzen ari den unean.

Ondoren botazioa egin da:

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	12	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzia		

Gaia aho batez onartu da aldeko 12 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- III -

GORRINZULO ITURBURUKO ABELTZAINZARAKO UR-APROBETXAMENDUAREN ADMINISTRAZIO-EMAKIDAREN ESKAERA.

Alkateak esan du batzar honetako 3., 4. eta 5. puntuak mendian dauden abereentzako ur hornidura ziurtatzeko hiru eskaera direla. Izan ere, mendiko larreak babesteko Europako araudiaren arabera garrantzitsua dela mendian abereak larreratzea eta, animalia horien beharrak asetzeko ur-instalazioak egin behar direla.

Mendiko larreak babesteko Europako arauditik datorrenaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundia, Mendi Zuzendaritzaren bitartez, eta Oiartzungo Udala lerro hori lantzen ari da Oiartzungo hainbat mendietan.

Idazkariak dio Udal mendi eta ingurumen teknikariak egindako txostenaren arabera, abereak larreratzea oso inportantea dela eta horretarako uraren hornidura ziurtatu behar dela.

Bertan egiten den proposamenaren arabera, abereentzako uraren instalazioa Oiartzungo Udalaren jabetzako Herri Onurako 2.063.1 Pikokarate mendian egingo litzateke, BOSTBIDETA izenez ezagutzen dena.

Autonomia-erkidegoko 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urei buruzkoaren arabera, autonomia-erkidego barneko arroetako ubideetan URA Ur Agentziak emango ditu emakidak.

Honenbestez, Lurralde Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman du, eta Udal Osoak honako ebazpena hartu du:

Lehena.- Uraren Euskal Agentziari Gorrinzulo erreko abeltzaintza erabilerarako ura probetxamenduaren administrazio-emakida eskatzea, 0,3 m³/egunekoa, eta urteko 90 m³ gehienez.

Bigarrena.- Eskaerarekin batera mendi teknikariaren txostena eta lurra udal jabetzakoak direla egiaztatzen duen Jabetza Erregistroko agiria bidaltzea (Herri Onurako 2.063.4 Pikokarate mendia).

Ondoren botazioa egin da:

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	12	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzia		

Gaia aho batez onartu da aldeko 12 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- IV -

**MALKOR ERREKAKO ABELTZAINZARAKO UR-APROBETXAMENDUAREN
ADMINISTRAZIO-EMAKIDAREN ESKAERA**

Idazkariak gogorarazten du Alkateak aurreko zenbakiko aztergaiaren zerrendan azaldutakoa azaldutzat jotzen dela.

Autonomia-erkidegoko 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urei buruzkoaren arabera, autonomia-erkidego barneko arroetako ubideetan URA Ur Agentziak emango ditu emakidak.

Honenbestez, Lurralde Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman du, eta Udal Osoko Bilkurari honako ebazpena har dezan proposatzen zaio:

Lehena.- Uraren Euskal Agentziari Malkor erreko abeltzaintza erabilerarako ur-aprobetxamenduaren administrazio-emakida eskatzea, 2,1 m³/egunekoa, eta urteko 630 m³ gehienez.

Bigarrena.- Eskaerarekin batera mendi teknikariaren txostena eta lurra udal jabetzakoak direla egiaztatzen duen Jabetza Erregistroko agiria bidaltzea (Herri Onurako 2.063.4 Pikokarate mendia).

Ondoren botazioa egin da:

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	12	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		

Abstentzia		
-------------------	--	--

Gaia aho batez onartu da aldeko 12 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- V -

ERAIN ERREKAKO ABELTZAINZARAKO UR-APROBETXAMENDUAREN ADMINISTRAZIO-EMAKIDAREN ESKAERA

Orain ere idazkariak gogorarazten du Alkateak aurreko zenbakiko aztergaiaren zerrendan azaldutakoa azaldutzat jotzen dela.

Teknikariak egin duen proposamenaren arabera, abereentzako uraren instalazioa Oiartzungo Udalaren jabetzako Herri Onurako 2.063.4 Zaria mendian egingo litzateke, ERAIN izenez ezagutzen dena.

Autonomia-erkidegoko 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urei buruzkoaren arabera, autonomia-erkidego barneko arroetako ubideetan URA Ur Agentziak emango ditu emakidak.

Honenbestez, Lurraldea Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman du, eta Udal Osoko Bilkurari honako ebazpena har dezan proposatzen zaio:

Lehena.- Uraren Euskal Agentziari Gorrinzulo erreka abeltzaintza erabilerarako ur aprobetxamenduaren administrazio-emakida eskatzea, 0,3 m³/eguneko, eta urteko 90 m³ gehienez.

Bigarrena.- Eskararekin batera mendi teknikariaren txostena eta lurra udal jabetzakoak direla egiaztatzen duen Jabetza Erregistroko agiria bidaltzea (Herri Onurako 2.063.4 Pikokarate mendia).

Ondoren botazioa egin da:

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	12	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzia		

Gaia aho batez onartu da aldeko 12 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- VI -

ALTZIBAR EGOITZA BERRIA SL SUSTATZAILEAK JAVIER TELLERIA ELORZ ARKITEKTOAK EGINDAKO "OIARTZUN. ALTZIBAR ALT 6 EREMUKO R-2 LURSAILAREN XEHETASUN AZTERKETA" DOKUMENTUAREN BEHIN BETIKO ONARPENA

Alkateak azaldu du 6. puntuan Altzibarko ALT-6 eremuan eraiki asmo diren etxebizitzetxei egiten diela erreferentzia.

Agerrealde eta Aduriz-enea arteko lurretan, 8 BOKO etxebizitza, 12 etxe tasatu eta 24 etxe salmenta librekoak aurreikusitako zituen Oiartzungo Plan Orokorrak 2015ean.

Eremuaren plangintza-dokumentuak azken urtetan idatzi eta onartu dira, bereziki Plan Berezia, eta baita eraikitze baimena lortu ere. Baina iaz Jaurlaritzak 80/2022 Dekretua onartu zuen eta etxebizitzaren bizigarritasun baldintzak aldatu zituen, horien artean ezin dela etxerik egin iparraldeko orientazio hutsarekin edo terrazak sustatzeko asmoz 10 m² baino txikiagoak ez dutela konputatuko. Horren ondorioz, proiektua berridatzi behar izan da.

Horri guztiari forma emateko Xehetasun Azterketa izeneko dokumentua tramitatu behar izan da, orain behin betiko onarpena jasotzera Udalbatza honetara ekartzen dena.

Ondoren eraikitze proiektua berriro aurkeztu beharko dute udal zerbitzuek baldintza guztiak zorrotz betetzen direla egiaztatu dezaten. Dokumentua R-2 lursailari dagokio, non etxe tasatuak eta libreak eraikiko diren.

Idazkariak azaldu du Hirigintzako udal teknikariak txostena eman duela Xehetasun Azterketari aplikagarri zaion legeria eta onarpenerako egin beharreko tramitazioari dagokionez, eta, ondorioz, Lurralde Batzordeak 2023ko uztailaren 17an emandako diktamenarekin adostasunean, Udal Osoko Bilkurak honako akordioa hartu du:

Lehena.- Altzibar Egoitza Berria S.L. sustatzaileak aurkeztu eta Javier Telleria Elorz arkitektoak egindako “Oiartzun. Altzibar ALT 6 eremuko R-2 lursailaren Xehetasun azterketa” dokumentuari behin betirako onarpena ematea.

Bigarrena.- Ebazpen hau eta dokumentuaren arautegia Gipuzkoako Aldizkari ofizialean eta web orrian argitaratzea eta sustatzaileari jakinaraztea.

Hirugarrena.- Erabaki honen berri ematea hirigintzaren arloan eskumena duen foru organoari.

Ondoren botazioa egin da:

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	12	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Gaia aho batez onartu da aldeko 12 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- VII -

2023. URTEKO LANPOSTUEN ZERRENDA ETA PLANTILLA ALDATZEA

Alkateak argitu du bi aldaketa proposatzen direla. Batetik, agente lehen lanpostu berri bat sortzea eta, bestetik, komunikazio eta gardentasun teknikariak bere orduz kanpo sartzan dituen ordu-kopurua ikusita, dedikazioa %10etik %20ra igotzea.

Idazkariak azaldu du espedientean giza baliabideetako arduradunaren txostena eta idazkariaren aldeko txostena jaso direla.



Honenbestez, Antolaketa eta kontu Bereziak Informazio Batzordearen aldeko irizpena eman da, eta Udal Osoko Bilkurak honako akordioa hartu du:

Lehen.- 2023. urteko lanpostuen zerrenda aldatzea ondorengo eran:

- Lehen agente lanpostuari dotazio bat gehitzea
- Komunikazio, Gardentasun eta Herritarren Parte-hartzerako teknikariaren dedikazioa %20ra zabaltzea, Erabateko Baliagarritasunaren modalitatearen baitan.

Bigarrena.- Udal honetako plantilla aldatzea eta Udaltzaingoko Agente lehena plaza bat sortzea, funtzionarioentzat gordetakoak, C1 azpitaldeko Administrazio Bereziko eskalakoa, eta Zerbitzu Berezien azpieskalakoa. Halaber, agente plaza bat “amortizatza” jartzea.

Hirugarrena.- 2023. urteko plantilla aldatzeko hasierako onespina Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta iragarkia argitaratzen denetik hamabost egun balioduneko epean jendurrean jartzea, epe horretan interesatuek aztertu eta beren erreklamazioak aurkezteko aukera izan dezaten.

Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, espedientea jendurrean dagoen bitartean, behin betirako onartutzat joko da.

Laugarrena.- Lanpostuen zerrendaren aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta ondorioak izango ditu 2023ko uztailaren 27tik aurrera.

Ondoren botazioa egin da:

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	12	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzia		

Gaia aho batez onartu da aldeko 12 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- VIII -

2022KO EKITALDIARI DAGOZKION ESKUBIDE EKONOMIKOEI BAJA EMATEA (ORDAINAGIRIAK BALIOGABETZEA).

Alkateak esan du iazko urtean, ur eta estolderiaren hainbat erreziobotan erreklamazioak egin zituztela hainbat herritarrek. Erreklamazioen arrazoiak desberdinak izan dira, uraren instalazioan matxura izan dutelako edo fugak izan direlako, adibidez.

Gaur erreziobo horiek indargabetu eta berriak onartzea proposatzen zaio Osoko Bilkurari iazko urtekoak direlako.

Kontuhartzailearen txosten horiekin adostasunean, aho batez, Udal Oso Batzarrari ondorengo errezioboak indargabetu eta ordezkoko berriak onartzeko proposatzen zaio:

URTEA/EPEA	Agiria	Titularra	Helbidea	Kopuru indargabetua	Kopuru berria
2022/02	564	<i>Datu pertsonalen babesarengatik ez da jaso</i>	Igerobi bidea 2-1. Leku-eder etxea	272,26 €	79,75 €
2022/03	561	<i>Datu pertsonalen babesarengatik ez da jaso</i>	Igerobi bidea 2-1. Leku-eder etxea	258,31 €	149,50 €
2022/02	4096	<i>Datu pertsonalen babesarengatik ez da jaso</i>	Lanbarren 2A3	218,96 €	167,51 €
2022/03	4101	<i>Datu pertsonalen babesarengatik ez da jaso</i>	Lanbarren 2A3	318,43 €	170,25 €
2022/03	551	<i>Datu pertsonalen babesarengatik ez da jaso</i>	Ozentzio kalea 2	346,20 €	131,37 €
2022/03	2696	<i>Datu pertsonalen babesarengatik ez da jaso</i>	Txalaka bidea 5	270,87 €	125,79 €
2022/03	979	<i>Datu pertsonalen babesarengatik ez da jaso</i>	Borrokazelai eta 1	259,71 €	64,41 €

Ondoren botazioa egin da:

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	12	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzia		

Gaia aho batez onartu da aldeko 12 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- IX -

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ADOSTUA EH BILDU ETA EAJ-PNVREN ARTEAN

Alkateak irakurri du EH Bildu eta EAJ-PNVren artean adostutako honako adierazpen instituzionala:

“Udalean euskara hutsez aritzeko eskubidearen aldeko adierazpen instituzionala

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak Udal Legearen aurka, udalei euskara hutsez aritzeko aukera ezetsiz emandako epaiak kezkatuta, Euskalgintzako eragileek uztailaren 13an Bilbon elkartzeko deialdia egin zuten. Oiartzungo alkate eta zinegotziek bat egin genuen deialdi horrekin EAEko beste hainbat alkate eta zinegotzirekin batera.

Kezkagarria eta larria iruditzen zaigu sententzia euskararen normalizazio eta biziberritze prozesuari oztopoa jartzea delako, helburu horren alde udaletatik bideratzen diren hizkuntza-politikak guttiz mugatzen baititu. Bide batez esan, herritar guztien hizkuntz eskubideak bermatzen dituzten hizkuntza-politikak direla atzera bota diren horiek, ezetsi den Udal Legearen 6.2 artikulua berariaz jasotzen baitu berme hori.

Finean, euskara eta euskal hiztunak mespretxatzen ditu epai honek, eta euskarak normalizazio eta biziberritze bidean etorkizunera begira dituen desafio handiei aurre egiteko moduko hizkuntza-politikak indarrean jartzea eragozten du.

Eusko Legebiltzarrak kontsentsu zabalez onartu zuen orain baliogabetutako Udal Legea. Era berean, azken Inkesta Soziolinguistikoak argi erakutsi du gizartearen gehiengo zabal batek babesten dituela euskararen normalizazioa helburu duten politikak. Beraz, epai hori euskararen biziberritzearen aurkakoa ez ezik adostasun sozial handi baten kontrakoa ere bada. Azken batean, herritarren eta udalen erabakimena jartzen ditu auzitan. Erabakimen horren defentsan egiten dugu adierazpen hau.

Uste dugu epai hau oldarraldi judizial zabalago baten parte dela, hizkuntza gutxituak jomugan dituen olatu erreakzionario batean kokatzen dela. Horregatik herritarrei dei egiten diegu azaroaren 4an oldarraldi honen aurka, baina, batik bat, euskararen normalizazio eta biziberritzearen alde Bilbon egingo den manifestazioan parte hartzera. Epai honen ondoren, deialdia are eta irmoago egiten dugu: oldarraldiaren aurka, baina, batez ere, euskararen normalizazio eta biziberritzearen alde.”

EAJ-PNVko zinegotziak hitza eskatu du eta Alkateak hitza eman ondoren, honako hau adierazi du: “Euskalgintzak Bilbon irakurri zuen adierazpen instituzional hau gure egitea eta plenora ekartzea ezin bestekoa iruditzen zitzaigun gure taldetik. Horregatik, Joanarekin hitz egin da eta berak egindako egokitzapenekin testu hau daukagu hemen gaur.

Euskaldunok gure administrazioekin geure hizkuntzan jarduteko dugun eskubidearen aurka lotsagabeki egiten duelako azken ebazpen honek.

Baina azken hau, ez da euskararen kontrako epai bakarra. Azken urte hauetan, gure lurraldean makina bat horrelako gertatzen hari dira. 2019an Nafarroan, bertako auzitegi nagusiak ez eremu mistoan eta ezta ere euskaldunean langile publiko kontratazioetan euskara ezin zela meritu moduan eskatu ebatzi zuen. 2021ean Irungo epaia etorri zen, 2022an Laudiokoa “euskara munduko hirugarren hizkuntzarik zailena dela” argudiatzen zuena. Eta aurten bertan, Barakaldo, Ondarru edo Foru Aldundiarena den Uliazpi Fundazioaren kontrakoa. Eta historian atzera egingo bagenu zer esanik ez, euskaren aurka izan diren, legeak, isunak etab. Beraz, ez da gaur goizekoa Espainiak euskarari azaldu dion mespretxua.

Gure taldetik ez dugu atzera pausurik onartuko. Horregatik bat egiten dugu testu honekin eta adierazpenak dion bezala, azaroaren 4an euskararen normalizazioaren alde herritarrei bertan parte hartzeko dei egiten diegu. Ez daukagulako panorama batere erraza.

Orain arte egin duguna egingo dugu: gureari eutsi. Euskarak egiten gaituelako euskaldun”.

Ondoren botazioa egin da:

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	12	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzia		

Gaia aho batez onartu da aldeko 12 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- X -

KREDITU GAIKUNTZA MOTAKO 5 ZB.KO KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA

Alkateak dio 3 diru-laguntza eskuratu direla: Herribideentzat lehena, bigarrena ikasketak amaitu berri dituen pertsona bat kontratatzeko, eta hirugarrena kiroldegiko plaka fotovoltaikoak jartzeko. Guztira 106.000 euro inguru izan dira. Halaber soldata aurrerapen bat ere aurreikusi dela.

Aurrekontuetan diru-sarrera horiek eta dagozkien gastuak sartu dira.

Idazkariak Udal kontu-hartzaileak, 2023 aurrekontuko kreditu aldaketarako, kreditu gaikuntza bidez egindako 5 zb.ko espedientearen berri eman du, 106.908,88 eurokoa. Kreditu gaikuntza hau onartu du Alkateak egindako 2023/951 Dekretuaren bidez. Azkenik, gogorarazi du berri ematea denez ez dagoela bozketarik.

- XI -

BESTE ORGANOEN JARDUERAREN JARRAIPENA

Idazkariak organoen jardueraren jarraipenaren (gogorarazi du hodeian dekretu guztien zerrenda ikusgarri dutela) berri eman du eta baita protokolo gastuen berri:

- Hartutako erabakiak:

Alkatearen ebazpenak:
2023ko maiatzaren 20tik uztailearen 19 arte.
Zk. 2023/748tik 2023/1233ra arte.

Tokiko Gobernu Batzarrak:
Deialdia egin zen eguna arte ez da Tokiko Gobernu Batzarrik egin.

- Protokolo eta ordezkaritzari dagozkion gastuak eta dietak:

Ekainean 542,27 euro eta uztailean 1915,74 euro.

Aldez aurretik aho batez presazko aitortpena egin ondoren (aldeko12 bozka), honako gaia landu eta onartu zen:

- GZK 1-

GAI ZERRENDATIK KANPO

2024. URTEKO HERRIKO JAI EGUNA PROPOSATZEA.

Idazkariak azaldu du maiatzaren 30eko 71/2023 Dekretuaren bidez (2023ko ekainaren 14ko EHAAn argitaratua) Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2024. urteko jaiegunen egutegia onartu zela.

Dekretuaren 2.2 artikulua xedatzen du Udal bakoitzak bere herriko jaiegun ofizialari buruzko proposamena egin eta dagokion lurralde-ordezkaritzari jakinarazi beharko diola. Izan ere, herriko jai eguna zehazteko eskumena Lan eta Justizia Saileko Lurralde-ordezkariei dagokie, udaletako udalbatzek proposatuta.

Honenbestez, aipatu agindua betetze aldera, Udal Osoko Batzarrak Oiarzungo jai eguna proposatu behar dio Lan eta Justizia Saileko Gipuzkoako Lurralde-ordezkaritari.

Giza Baliabideetako arduradunak egindako txostena kontuan hartuz, honako erabaki har dezan proposatzen zaio Udal Osoko Bilkurari:

Lehen.- Abuztuaren 3a (larunbata), Done Eztebe eguna, proposatzea 2024. urteko herriko jaiegun ofizialtzat.

Bigarrena.- Eusko Jaurlaritzaren lan eta Justizia Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari proposamen honen berri ematea.

Ondoren botazioa egin da:

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	12	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Gaia aho batez onartu da aldeko 12 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- XII -

ESKARI-GALDERAK

Ez da eskaerarik ezta galderarik egin.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra, 18:30ak direnean. Idazkariak batzarrari dagokion agiri hau idatzi eta alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorriz Toki Erakundearen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, idazkaria naizen honek, ematen dut.

Alkatea

Idazkaria

Elektronikoki sinatutako agiria